

ESKOLA JANTOKIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN

Zergatik proposatzen dira hizkuntza-irizpideak?

Ikastetxearen helburuetako bat ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea da: gutxienez euskaraz eta gaztelaniaz erraztasuna izatera iristea.

Hizkuntzak erabili egin behar dira ondo ikasteko eta erraztasuna izatera iristeko.

Gizartean gaztelania da indar handiena duen hizkuntza, eta beraz, hizkuntza horretan erabilera ziurtatua dute hurrek/gazteek. Eskolak euskaren erabilera indartuko du baina mugak ditu erabilera hori eskaintzerakoan eta behar beharrezkoa da eskola orduetatik kanpo ere euskararen erabilera indartzea.

Horri begira, hizkuntza-irizpide sinple eta zehatzak proposatzen dira dokumentu honetan.

OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Zer egin behar genuke? Gu bai Hezitzaile Berritsuak!!

Oinarrizko estrategia:

- Parte-hartzaleei **beti euskaraz egin**. Ez kontuan hartu beraiek nola erantzuten dizueten, zuek beti euskaraz egin. Oinarrizko pausoa da hori.

Estrategia nagusiak: GU BAI HEZITZAILE BERRITSUAK!!

- **Banan banako elkarrizketa asko sortu**: ahalegindu egunero banan banako elkarrizketa asko sortzen. Motzak ez diren elkarrizketak: *bai* eta *ez* erantzunek ez dutenak balio. Elkarrizketa mantentzeko zailtasunak badituzte ereduak eman eta errepikatzera gonbidatu. Ikasleekin hizketan ari garenean, eta **ikasleren batek ez badigu euskaraz egiten**: elkarrizketan bertan ahalegina eskatuko diogu (*esan orain euskaraz-ziur badakizula hori euskaraz esaten-lagunduko dizut hori euskaraz esaten*) eta errepikatu arazi egingo diogu. Ahalegina sumatzen badugu errefortzu positiboak ere emango dizkiegu (*ikusten, gero eta hobeto egiten duzu, oso pozik nago, azkenaldian beti euskaraz egiten didazu- horrela jarraitzen baduzu...*).
- **Beraien arteko elkarrizketetan parte hartu**: ahalegindu egunero beraien arteko elkarrizketa batzuetan eragiten eta elkarrizketa horiek euskarara eramaten. Zenbat eta elkarrizketa gehiagotan eragin orduan eta hobe.
- Errefortzu positiboak eman: euskaraz adierazteko ahalegina egiten dutenean, ohikoa ez den egoera batean euskaraz entzuten ditugunean... Gure jarrera hori bada, askotan emateko moduak aurkituko ditugu.

Gurekin euskaraz egitea eta elkarrizketa luzeak mantentzea lortzen badugu, eta gure eraginez bada ere beraien artean hainbatetan euskaraz egitea lortzen badugu, eta gainera, guk zoriondu eta animatu egiten ditugulako arro eta pozik sentitzea lortzen badugu... Ez al da lorpen bikaina? Horretan lagundu behar diegu!

Zer ez dugu egin behar?

- Ez erabili *Egin euskaraz!* edo antzeko esaldirik.
- Ez kargu hartu euskaraz egiten ez dutelako, ez errudun sentiarazi.
- Ez zuzendu: Komunikatzen badira, balio du. Ez zaigu gehiegi axola jardueretan euskara zuzena erabiltzen duten edo ez: asko eta gustura erabiltzen badute hobetuko dute, baina ez badute erabiltzen ez dute inoiz hobetuko. Hori bai, zerbait adierazteko laguntza eskatzen badizute, eman. Laguntzea komenigarri ikusten baduzue baliabideak eskainiz lagundu (*Pasatu ura. Ura ematea nahi duzu? Bai, eman ura, mesedez*). Baina ez zuzendu.
- Hizkuntza kontuetan behintzat, ez zigorrik eta ez mehatxurik. Ez dugu ezer aurreratuko.
- Zergatik ez dira estrategia horiek erabili behar?
 - o Nahiko normala da haurrek gaztelaniarako joera hartzea. Askoren ama hizkuntza gaztelania da eta erraztasun eta aberastasun handiagoa dute gaztelaniarekin. Gainera, inguruneak (auzoak, hiriak...) nagusiki gaztelania eskaintzen die. Beraz, normaltzat hartu daiteke joera hori. Gu denon zeregina da euskara asko erabil dezaten laguntzea.
 - o Euskararekin harreman handia eta positiboa izatea nahi dugu. Horrelako estrategiekin ez dugu lortzen harremana handitzea, eta, gainera, harreman hori negatiboa da. Gure eragina handiagoa edo txikiagoa izan, positiboa izatea lortu behar dugu.
- Eta kontuan izan, hezitzaileen artean euskaraz egin. Haurrek zuek gaztelaniaz (tarteka bada ere) egiten duzuela sumatzen badute, zuen sinesgarritasun guztia galduko duzue.

Irizpide osagarriak

- **Paisaia linguistikoa:** Jarduerarekin zerikusia duten kartelak, muralak edo antzekoak prestatzen badira eta jartzen badira, horietan euskararen presentzia zaintzea. Ahal dela, euskara hutsez izatea. Hori ezin den kasuetan, euskarak izatea lehentasuna (letra handiagoa, leku nabarientan...).
- **Musika:** Jardueran musika erabiltzen bada, horretan ere euskarak lekua izatea bilatuko da. Ez da proposatzen musika guztia euskaraz izatea, euskarazko musikak ere lekua izatea, baizik.
- **Gurasoekin harremana:** Gurasoek aukeratuko ahal izango dute hizkuntza, baina euskaraz harremanak sortu badaitezke ahal dela hizkuntza horretan izatea bideratuko dute arduradunek eta hezitzaileek.

TRESNA PRAKTIKOAK

Oinarrizko irizpidez gain, badaude egunerokotasunean erabil daitezkeen zenbait tresna. Hauek adibide batzuk:

Tresna praktikoak:

- Egoera informaletarako esaldiak
- Paisaia linguistikoa
- Interneteko baliabideak

IKASLEEKIN ERABILTZEKO ESALDIAK: EGOERA INFORMALETAKO ESALDIAK

Errutina linguistikoek laguntzen dute euskararen erabilerarekin. Ikasleek euskara asko entzutea nahi dugu eta horrekin batera euskara erabiltzea. Antzekoak diren esaldi batzuk askotan entzuten badituzte, errazagoa izan daiteke esamolde horiek ere erabiltzea.

Proposamena hauxe da:

- Aukeratu egunero edo ia egunero errepikatu daitezkeen esaldi batzuk: 3 edo 4
- Bi modutako esaldiak izan daitezke: jarduerarekin zerikusi zuzena dutenak edo egoera informaletarako esaldiak
- Hezitzaile guztiok hasi egunero esaldi horiek erabiltzen
- Ohitura hartzen duzuenan beste 3 edo 4 ikasi

Bereziki interesatzen zaizkigu beraiek gaztelaniaz erabiltzen dituzten errutinazko esamoldeen ordezkioak proposatzea: que asco, que perez... eta horrelakoak.

Osatu zerrenda (bizkaiera oinarri duten esaldiak badira hobe), aukeratu zerrenda horretatik 3 edo 4 esaldi eta guztiok hasi erabiltzen.

Harrera	Eguerdion. Hemen gaude jaten emateko prest.
	Gaur ere gosez etorri zarete?
	Zer moduz eguna? Asko ikasi duzue?
Irteera	Agur. Bihar ere gosez etorri!
Janariari buruz galdetzerakoan	Goxoa, baietz?
	Ez al dago goxoa? Itxura bikaina dauka!
	A ze nazka? Nazka ematen dizula? Hori ezinezkoa da! (<i>Que asco-ren ordezkioa</i>)
	Mailukiak goxoak daude, ezta?
Janaria hartzen dutenean	Ez izan begiluzea. Neurrian hartu.

ebete

	Platera goraino betetzen baduzu, gero dena jan beharko duzu.
	Etxeko araua: denetik probatu behar da. <i>(Batzuetan erabili eta gero galdera soilik: Zein da etxeko araua?)</i>
Bazkaltzen ari direnean	Kontuz mingaina erre gabe, beroa egongo da oraindik.
	Zuk baduzu fundamentua: goilara bete eta ahoan sartu. Gogoratzen?
	Lagunduko dizut ebagiten/mozten?
Gauzak jasotzerakoan	Jaso dezagun txukun txukun.
	Oso ondo! Eman bostekoa!
Lotara joaterakoan	Kremailera itxi
	Bolon bat eta bolon bi, isi isilik nago ni (abestu)

Isiltasuna eskatzekoak	Ez dut txintik ere entzun nahi
	Askoz goapoagoak zaudete isi isilik
	Kremailera itxi...
Gosea adieraztekoak	Tripa-zorriak daukazu?
	Gosez amorratuta zaudete?
	Zulo handia daukazue tripan? Nolakoa?
	Gose zara?
Nekea adieraztekoak	Nekaporratuta zaude?
	Porru eginda nago
	Leher eginda zaude?
	Nekatuta zaude?
Animoak ematekoak	Eutsi goiari

	Primeran ari zarete
	Hori dunk sasoia!
	Zuk ahal dozu!
Adarra jotzekoak	Hau pitzatuta dago!
	Hau da xelebrea!
	Barrez lehertuko naiz!
Bestelakoak	“Que perezaren” ordezkioak: hau nekea, hau galbana, hau alperkeria...
	“Que asco” “Que basura” “Está prodrido” ren ordezkioak: hau nazka, hau itxura, hau da kiratsa, haut botagurea, ze nazka...
Errefortzu positiboa zerbait ondo egitean	Zein nagusiak zareten!
	Zein txapeldunak zareten!
Zerbait gaizki egin dutenean	Gaur oso triste nago

Zein egoera gehiago bururatzen zaizkizue? Eta esamolderen bat?

1-

2-

3-

...

PAISAIA LINGUISTIKOA

Euskararekin harremana lantzeko modu bat paisaia linguistikoa zaintzea da. Jantokiaren kasuan: marrazki eta esaldiekin kartelak. Kartel horiekin jantokia girotzen dugu eta euskarak lekua hartzen du. Lagungarria da bereziki tarteka kartelak aldatzen baditugu. Urte garaiarekin lotutako esaldiak izan daitezke, edo janariekin, edo jateko moduarekin...

Karteletan agertu daitezkeen esaldiak:

Umore punttu bat duten esaldiak
Guri eman kroketak, eta ez etxerako ariketak!
Goseak erremedio bakarra du: jatea.
Gustatzen zaigu arraina, alajaina!
Entsalada jan eta ibili dantzan.
Ikusten ditudanean dilistak ateratzen zaizkit begietatik txispak.
Zopa bero? Ahora gero.
Makarroiak eta tomatea, ba al dago zerbait hobea?
Zarata zikina. Hau buruko mina!
Burrunba eta zarata, jangela baino honek ematen du batukada.
Isiltasun pixka bat mesedez, janariak zer esaten duen entzun nahi dut eta!

Janarien eta jateko tresnen argazkiak eta izena ondo
Makarroiak, zopa, arroza...
Goilara, platera...

Ikasleekin erabiltzen ditugun esaldiak
Tripa zorriak ditut!
Gose naiz!
On egin. Eskerrik asko eta berdin.
Mesedez, gehiago.
Jan ganoraz.
Bapo nago.Primeran dago.
Bigarrena jan dezaket? Lehenengo amaitu aurrena!

Esaldi batzuk aukeratzen badituzue, hiru modu behintzat badituzue prestatzeko:

- Ikasleekin eskulanak egin eta beraiekin batera prestatzea
- Hezitzaileok prestatzea
- Ikastetxeko arduradunei eskatzea

Marrazki bizidunak / Dibujos animados:

<http://marrazkiak.euskal-encodings.com>

Karaokea, musika:

www.txantxangorria.eus

www.kantuan.net

badok.info (euskarazko musika bilduma handiena: gauza berri berriak ere bai)

Ipuinak entzuteko /Cuentos:

www.etxegiroan.eu

Jolasak / Juegos:

www.aisia.net/jolasak

Youtuben: "Txantxariak" sartuta

Hitz-jokoak /Juegos de palabras

www.xedera.com

Hiztegiak

www.hiztegia.net

Bestelako webguneak

www.txiki.net

www.aisia.net

www.emangiltza.com

www.childtopia.com

Zer ote da?

- kinder pilotatxo baten barruan zerbat ezkutatuko dugu (animaliak, objektuak, papertxoak idatzita irakurtzen jakinez gero...
- Umeak borobilean jarri eta hezitzailea abesten hasiko da borobilaren kanpotik bueltak ematen dituen bitartean.

Hezitzailea: Nik badaukat, nik badaukat, nik badaukat gauza bat, zer ote da? Zer ote da, eskutan daukadana?

Umeak: Zer ote da? Zer ote da, eskutan daukazuna? Zer ote da? Zer ote da, asmatuko duguna?

- Ume bati pilotatxoa utzi eta barruan begiratu dezala.
- Besteek galderen bidez asmatu beharko dute zer den barruan dagoena.

Maite zaitut!

- Borobilean jarriko dira elkarren oinak ikutzen (aukera izanez gero uztailak jarri ahal dira) eta bat erdian geratuko da.
- Barruan dagoena norbaiten aurrean jarri eta "maite zaitut!" esango dio.
- Besteak "zergatik?"
- Eta besteak gorputzean daraman edozer gauza esan beharko du, adibidez: "betaurrekoak dituzulako!". Eta betaurrekoak dituzten guztiak lekuz aldatu beharko dute (borobilaren barrutik). Bat erdian geratuko da eta berriro...

Zapitxoa moldatuta

Bi talde egingo ditugu eta zenbakiak banatu (betiko jolasean bezela)
Gauza ezberdinak bilduko ditugu: kapela, jaka, motxila, zapia... eta lurrean jartzen goazen bitartean, zertarako balio duten joango gara esaten (guztiak batera). Adibidez: Kapelak zertarako balio du? Buruan jartzeko...
Jolasten hasteko prest gaude: zenbakia esan baino lehen, objektu horrek zertarako balio duen esan eta, orain bai, zenbakia esango dugu. Orduan joango dira zenbaki hori daukatenean deskribatutako objektua hartzera.

3 lerroan

- Lurrean 3 lerroaren taula handia marraztuko dugu.
- Bi talde egongo dira ilaran jarrita taulatik diztantzia batera. Talde bakoitzak bere koloreko fitxak izango ditu (2 koloretako kartulinak plastifikatu, 4 eta 4).

ebete

- "Aurrera!" esaten dugunean lehenengoak irtengo dira, fitxa jarri eta korrika bueltatuko dira. Hurrengoa atera ahal izateko: "Eman bostekoa!" "Hor doa!" esan beharko diote elkarri.
- Errelebo lasterketa bat izango da eta 3 lerroan egiten duen lehenak irabaziko du.

Giza irudiak

- Pertsonen osatutako irudiak izango ditugu eskura
- Haurrak taldekatu eta bozeramaile batek izango du irudia, besteek ikusi gabe.
- Pertsona hori taldetik distantzia batera jarriko da eta kontsignak emango ditu: Iker zu jarri etzanda, Enara zuk hanka Ikerren eskuin eskuan jarri..."

Ni naiz!

("STOP" jolasaren moldaera)

- Harrapaketan ibiliko dira, bat harrapatzen.
- Harrapatua ez izateko "Ni naiz!" esan eta lekuan geldi geratuko da besoak zabalik.
- Libratzeko beste bi pertsona behar izango ditu:
 - Lehenengoak: "Kaixo!"
 - Bigarrenak: "Nor da?"
 - Hirugarrenak: "Txakurra naiz!" (edozein animalia izena esan eta beso azpitik pasatuko da)

Zuretzat da!

- Ume batek pilota dauka eta borobilaren erdian dago.
- Pertsona bat deskribatzen hasten da: "galtza luzeak dauzka, ile horia eta saskibaloian oso ona da, zuretzat!"
- Deskribatua izan den horrek pilota jaso behar du boterik eman gabe "hartu dut". Gero beste norbaiten izenarekin hasiko da.

Nagusientzako aldaera: Pilota hartu behar duen umea, hartzen duenean, beste bati ematen saiatu behar da. Lortzen badu emandakoa jarri beharko da erdian, bestela pilota hartu duena.

ebete

Galdezka

- Borobilean jarrita eta pilotarekin. Urte hasieran ezagutza jolas bezala erabili daiteke.
- Pilota daukanak galdetuko du: "Nor zara zu?". Eta segituan pilota norbaiti bota.
- Orduan, pilota hartu duenaren alboko pertsonak erantzungo dute aldi berean: "Bera Ane da!"
(galderak eta erantzunak aldatu daitezke: "zein koloretakoa da zure jaka?"
"bere jaka gorria da!"...)

Sagu txiki

- Borobilean eserita, musikaren erritmoan sagua korroaren kanpoaldetik bueltak ematen, hasiko da jolasa. Beste guztiak begiak itxita egon behar dira.
- Abestia bukatu aurretik, haur baten bizkar atzean jostailu edo zapi bat jarriko du. Abestia bukatzen denean ume guztiek atzera begiratuko dute, jostailua nork duen jakiteko.
- Jostailua duen haurra, katua algia, korrika joango da sagua harrapatzera hau bere eserlekuan jarri baino lehen.

Abestia:

*Sagu txiki, sagu maite,
zulotxoan gorde zaituz.
Zapik ikusten bazaitu
kris kras jan egingo zaitu.
Ez nau jango!
Jango zaitu"*

Zurbiri-zubiri

- Bi umek beren besoekin zubia eraikiko dute, haur bat porrupatata izango da eta bestea txokolatea baina gelako beste hurrek ez dute jakin behar zer den nor, beste guztiak, ilaran jarrita kantatuz, zubipetik pasako dira.
- Abestia bukatzen denean, zubipean dagoen haurra harrapatu egingo dute zubikoek eta belarrira zer nahiago dun galdetu: "Porrupatata ala txokolatea?".

ebete

- Aukeratzen duen elementuaren arabera zubiko haur baten edo bestearen atzean kokatuko dira. Guztiek aukeratzen dutenean, pertsonen "sokatira" egingo dute ea zein taldek irabazi duen jakiteko.

Abestia:

Zubiri zubiri,

nongori, nongori,

nongo alkate zara zu?

(Larrea)ko erregearen

seme alabak gara gu.

Zubi hontatik pasatzen dena

hemen geldituko dela

hemen geldituko dela.

(Zer nahi duzu? Porrupatata ala txokolatea?)